



# Adi-adian

## Hezkuntza-modulua

---

Giza duintasunari, bizikidetzari eta  
enpatiari buruzko  
ikaskuntzak, biktimen testigantzak  
entzuteko esperientziaren bidez

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

# Aurkezpena

---

Euskal hezkuntza-sistemaren urteetako kezka da nola landu behar diren bakearen aldeko hezkuntza, indarkeriaren bidegabekeria, biktimekiko elkartasuna eta beren testigantzen balio pedagogikoa.



2005-2009 legegintzaldian, Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Planaren barruan, “Bakerako Urratsak” eta “Marka uzten diguten istorioak” unitate didaktikoak egin ziren, eta 2006-07 eta 2007-08 ikasturteetan esperientzia pilotuak mamitu ziren. Horietan, biktimen testigantzekin lan egin zen, Antzerki-Forumaren tresnaren bidez.

2010ean, hezkuntza-curriculumaldatze dekretuak biktimekiko enpatia lantzearen garrantzia txertatu zuen. Urte bereko ekainean, Eusko Jaurlaritzak aurreko planaren birformulazioa onartu eta, testuinguru horretan, 2011n Biktima Hezitzaileak programa abian jarri zuen. Programa horrek ETaren eta beste erakunde batzuen (BVE, GAL...) indarkeriaren zenbait biktima aukeratu eta trebatu zituen DBHko 4. mailako eta Batxilergoko ikasgeletan beren esperientziaren berri eman zezaten, helburu hezigarri batez.

Legegintzaldi honetan, 2013ko bigarren hiruhilekoan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak 2011 eta 2013 bitarteko programaren garapeneren ebaluazioa egin zuten. Ebaluazio horrek zenbait gabezia hauteman ditu programaren definizioan, ikastetxe eta irakasleekiko elkarrekintzan eta, bereziki, ekimenaren ezarpenean.

Ebaluazio-prozesuaren asmoa ez da hutsune horietan sakontzea. Lehenik eta behin, alderdi positiboak espresuki nabarmendu nahi ditugu, horiei jarraipena emateko, eta, bigarrenik, hautemandako gabeziak modu eraikitzailean baliatu nahi ditugu, hobekuntza-esparruak definitzeko. Oinarri horiekin, eta zentruak beraiek egindako ebaluazioaren arabera, hiru dira jarraipena eman behar zaien alderdi positibo nagusiak:

- Programaren oinarriko ideia, biktimen testigantzari hezkuntza-balio esanguratsua ematen diona.

- Mota desberdineko indarkeriaren biktimen testigantzak entzuteko aukera.

- Parte hartzen duten biktimekin egiten den lanaren prestaketa, eta beren bizikidetzaren mezuaren edukia, testigantzaaren ardatz nagusia dena.

Hobekuntza-esparruak, aldi berean jarduerak-ildoak definitzen dituztenak, puntu hauetan laburbiltzen dira:

- Hezkuntza-komunitatearekiko harremana eta lanikidetzaren hobetzea ekimenaren diseinuari eta hurbilbideari dagokienez.

- Ikastetxei eta irakasleei hezkuntzako lan-proposamen hau hobeto aurkeztea eta horren inguruko informazio eta prestakuntza hobea ematea.

- Ikastetxeetan ekimenaren ezarpena eta oihartzuna handitzea eta hura hobeto praktikan jartzea.


- Ekimenari ikuspegi didaktiko interaktiboago eta sortzaileagoa emateko aukera aztertzea, eta pedagogiaren aldetik etekin handiagoa ateratzea.

Hori guztia fase berri baten abiapuntua da programa honen garapenean, hemendik aurrera izen hau izango duena: “Adi-adian Hezkuntza-modulua. Giza duintasunaren, bizikidetzaren eta enpatia inguruko ikasketak, biktimen testigantzak entzutearen esperientziaren bidez”. Lehenengo urratsa da programa zertan datzan eta norantz bideratuko den zehatz-mehatz azaltzea. Horretarako, dokumentu hau hezkuntza-komunitatearekin partekatzen dugu, haien ekarpenak eta iradokizunak jasotze aldera.

# 1. Oinarriak

---

Tankera honetako hezkuntza-modulu bat sustatzeko edo berrindartzeko unean, ez da komeni haren egokitasuna bermatzen duten arrazoiak hain agerikoak direla ziurtzat jotzea.



Horrenbestez, hura ezartzeko arrazoien inguruan go-goeta zehatza egin beharko litzateke alde aurretik. Alde horretatik, oinarritzko bi arrazoi nagusi nabarmendu behar dira: bata hezkuntzarekin lotutakoa, eta bestea komunitatearekin.

### 1.1. Hezkuntzarekin lotutako arrazoa

Indarkeria, terrorismoa eta giza eskubideen urraketak ez dira, soilik, per se gertatzen diren bidegabekeriak; hala dira funtsean pertsona jakin batzuei muturreko sufrimendua eragiten dietelako. Hezkuntza-balio oso garrantzitsua du lehen eskutik eza-gutzeak edo entzuteak sufrimendu hori bizi eta gorrotoaren ordeztu bizikidetzaren diskurtso eraikitzaileak defendatzen dituztenen testigantza.

Testigantza horrek indarkeriaren errealitate-printzipioaren aurrean kokatzen gaitu: eragiten duen giza sufrimendua. Testigantza horrek giza hezkuntzari, hezkuntza pertsonalari eta prosozialari errefortzu pedagogikoa emateko aukera ematen du. Benetako esperientzia baten bidez, enpatiaren, bizikidetzaren, giza duintasunaren eta giza eskubideen alde hezteko eta bidegabekeriaren aurrean zentzu kritikoa garatzeko abagunea dute ikasleek.

### 1.2. Komunitatearekin lotutako arrazoa


Eskolak ikaskuntza-komunitate bat osatzen du bere ingurunearekin, bere auzoarekin, bere herriarekin, bere herrialdearekin, bere kontinentearekin eta bere planetarekin. Gure inguruan gertatzen dena hezkuntza-prozesuaren funtsezko aztergaia da. ETaren indarkeria amaitu delarik, garrantzi handiko zerbait –historikoa– gertatzen ari da gure herrian. Hainbat hamarkadaren ostean, iragana modu kritikoa oroitze eta bizikidetzaren normalizatua eta bakesua eraikitze garaia heldu zaigu.

Eskola bere gizartearen eta gizarte horren aurrerabiderako prozesuaren parte da. Elkarlotze horretan, hauxe da babestu behar dugun printzipio gidaria: erdigunean ikaslea dago, eta lehentasuna hezkuntza-helburuari eman behar zaio, beste edozein kausaren aurrean. Oinarri hori finkatuta, hezkuntza-arloa gertu dago bere gizartearekin partekatze indarkeria eta suminezko bizipen traumatiko bat gainditzeko beharrezkoa den ikaskuntza-prozesu kolektiboa. Elkarrekin ikasten dugu, pertsona zein gizarte gisa hobetzeko.

## 2. Helburuak

---

Modulu honen azken xedea da norberaren hezkuntza-prozesua hobetzen eta sendotzen laguntzea, geure errealitatearen testuinguruan, gizarte eta mundu hobe baten alde eginez.



Eginkizun orokor horretatik abiatuta, helburuak hauek dira:

---

### ·Esperientzia

Bizipen hezigarri bat sustatzea, indarkeriak eragiten duen benetako sufrimenduaren bidegabekeria ikusi eta sentitzeko aukera emango duena, ondoren horretatik ikasteko (autonomia).

### ·Enpatia

Bidegabekeriak sufritzen eta jasaten dituzten pertsonetikiko enpatia sentitzeko gaitasuna garatzea ikasleengan.

### ·Giza duintasuna

Giza duintasuna goi-mailako balio gisa ulertzea, bizitzea eta horretaz jabetzea.

### ·Giza eskubideak

Giza eskubideen edukia ezagutzea eta ikastea horien sakoneko zentzua ulertzeko, bizitza pertsonal eta sozialari begira.

### ·Bizikidetza

Elkarrekin hobeto bizitzen ikastea errespetuan oinarrituta, eta ikaskuntza hori eguneroko bizitzara eramatea.

### 3. Erreferentzia-esparrua

---

Modulu hau ezin da ekimen isolatu gisa garatu, ezpada hezkuntzari buruzko ikuspegi integral baten parte gisa.





Lau erreferentzia garrantzitsu dituen esparru baten barruan kokatzen da: gaitasunetan heztea, euskal hezkuntza-curriculum, ikastetxeen aurretiko lana eta hezkuntza inklusiboa.

### 3.1. Gaitasunetan heztea

Gaitasunetan heztea euskal hezkuntza-curriculumak jaso duen Europako orientabide estrategikoa da, eta hezkuntza-prozesuetan txertatu nahi den jarduera orotan aintzat hartu beharko liratekeen hezkuntza-printzipioek eta -helburuek bat egiten duten eremua mugarrizten du.

Hezkuntza-modulu honen helburuak eta garapena gaitasunen arabera hezkuntzari lotzen zaizkio esplizituki. Zehazki, gaitasun hauen esparruan sartzen da: izateko gaitasuna (autonomia eta ekimen pertsonalerako gaitasuna), elkarrekin bizitzeko (gizarte- eta herritar-gaitasunak) eta hitz egiteko eta sentimendu edo iritzi kritikoak adierazteko (adierazteko eta komunikatzeko gaitasunak).

### 3.2. Hezkuntza-curriculum

Modulu honen garapena 2010eko apirilaren 20ko Dekretuan, Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculum ezartzekoan, xedatutako helburuen, edukien eta ebaluazio-irizpideen esparruan kokatzen da ezinbestean.

70. artikulua (Sarrera): “Giza eskubideak lantzeko orduan zorrotz erabili behar dira kon-

tzeptuak, eta, gainera, enpatia bilatu behar da giza eskubideak zapaldu zaizkien pertsonekin. Horretarako, ezagutu beharrekoak dira haien lekukotzak...”.

72. artikulua (Helburua): “Egiturazko indarkeria-egoerek (gatazka armatuak, pobrezia, muturreko desberdintasuna...) indarkeria terrorista, genero-indarkeria, parekoen arteko indarkeria eragindako giza eskubideen zapalketak ezagutzea, eta bakea, askatasuna, segurtasuna eta berdintasuna lortzeko asmoa duten ekintzak balioestea, mundu zuzen eta solidarioagoa lortzeko bitartekoa baita”.

73. artikulua, 4. blokea (Edukiak): “Giza eskubideen zapalketa-egoerak zuzitzeko ahalegin oro baztertzea”, bai eta “gure gizartean biktimei haien izaera aitortzea, eta egoerei aurre egiteko eta haiek gainditzeko eredutzat balioestea”.

73. artikulua, 8. blokea (Ebaluazio-irizpideak): “Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren oinarrizko printzipioak eta baloreak eta horien bilakaera ezagutzea, eskubide-urraketa gertatzen den egoerak hautematea, eskubideok defendatzeko ekintzak proposatzea eta urraketa horien biktimekiko enpatia adieraztea”. “Ea ain-

---

tzat hartzen dituen gerra-gatazketako biktimak, terrorismoaren biktimak, genero-indarkeriaren biktimak, eskola edo laneko jazarpenaren biktimak edo beste mota bateko indarkeria-ekin-tzen biktimak, eta ea haiekiko enpatia eta hur-biltasuna erakusten duen”.

Esparru horrek definitzen du azkenean ikastetxeen-tzat aginduzkoa dena. Arau-erreferentzia hori aint-ztat hartzeak aukera ematen digu Hezkuntza-mo-dulu hau bizikidetzarako hezkuntzako zeharkako proiektu batean txertatzeko. Proiektuak elkarrekin lotutako hainbat ildo lantzen ditu; horietako bat da terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen biktimekiko elkartasuna.

### 3.3. Ikastetxeen aurretiko lana eta autonomia

Ez gara hutsetik abiatzen. Ez da gutxi orain arte egin dena. Ikastetxe bakoitzak bere ibilbidea du egina bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko hezkuntzan. Aurretiko lan hori Hezkuntza-modulu hau kokatu behar den esparruaren parte da. Ezagutza ez da homogeneoa, baizik eta asko-tarikoa, ikastetxe bakoitzaren errealitatearen ara-berakoa. Adi-adian Modulua ezin da proposamen berdintzaile gisa ulertu; aldiz, eskola bakoitzaren errealitatera egokitzen den tresna da, jada eginda-

ko zein egiteko dagoen ibilbidean eta lanean sako-n-tzeko eta aurrera egiteko.

Eta testuinguru horretan, hain zuzen, ikastetxeen au-tonomiak garrantzi handia hartzen du. Lege-xedape-nei eta ikastetxeen antolakuntza eta funtzionamen-duari jarraiki, ikastetxeei dagokie, beren autonomia baliatuz, curriculumari buruzko dekretuak ezartzen dituen irizpideak nola zehaztuko dituzten erabaki-tzea. Urratsez urrats taxututako prozedura da, non ikastetxeko organo guztiek parte hartzen duten. Hez-kuntza-modulu honen gauzatze praktikoa ulertzeko, arau-erreferentzia hori kontuan hartu behar da.

### 3.4. Eskola inklusiboa

Gaur egun euskal hezkuntza-sistema eta Europa-ko hezkuntza-sistema gehienak zeharkatzen dituen kontzeptua da hezkuntza inklusiboa. Konpromiso bat dakar berekin: denei leku egitea, giza erreali-tate konplexua osatzen duten egoeren eta ahalme-nen aniztasuna aintzat hartuta. Giza eskubideez eta horien urraketen biktimez hitz egiten dugunean, eskola inklusiboak esan nahi du sufritzen edo sufri-tu dutenei ere leku egitea.

Begiak, belarriak eta sentiberatasuna izatean datza, guregandik oso hurbil egon daitekeen “zu” perso-nal batengan indarkeriaren bidegabekeria eta sufri-

---

---


mendua ulertu eta aitortu ahal izateko. Une honetan, euskal gizartea ere oroimen- eta inklusio-prozesu hori aurrera eramaten ari da. Elkarrekin bizitzera deitzen gaituzten biktimen testigantza entzuteak balio hezigarri eta prosozial handia du. Inklusioaren etika ulertzeko, funtsezkoa da giza duintasunaren eta giza eskubideen zentzua konprenitzea.

Eskola inklusiboa ikuspegi horretatik eta bizipen horretatik ulertzen da. Giza duintasuna ez da kontzeptu teoriko huts bat; funtsean, barneratu behar den esperientzia bat da. Biktimen testigantzak hezkuntza inklusibo baten esparruan landu nahi duen hezkuntza-modulu batek giza duintasuna izan behar du abiapuntu eta oinarri. Hori da Adi-adian Hezkuntza-moduluaren zimendua.

## 4. Orientabide pedagogikoko irizpideak

---

Hezkuntza-modulu honen proposamena, beraz, azpimarratu ditugun lau erreferentziak batzen dituen esparru orokorraren barruan kokatzen da.



Oinarri horren inguruan, Adi-adian Hezkuntza-modulua garatzeko orduan baliagarriak izan daitezkeen orientabide pedagogikoko zenbait irizpide azaltzen dira jarraian:

#### 4.1. Konpromisoaren pedagogia

Hezkuntza-modulu honek iraganari, orainari eta etorkizunari buruzko diskurtso konprometitu bat du berme. Iraganaren lanketa biktimek jasandako bidegabekeria kontziente izatean oinarritzen da. Orainak enpatiaren eta elkartasunaren esperientzia atzeman nahi du. Etor-kizunaren jomuga da bizikidetzarako eta indarkeria prebenitzeko erreferentzia-esparru etiko bat, giza duintasunean eta giza eskubideen errespetuan oinarritua, modu eraikitzailean sortzea.

#### 4.2. Unibertsaltasunaren pedagogia

Adi-adian Hezkuntza-moduluak gizatasunaren eta unibertsaltasunaren pedagogia bat sustatzen du. Lantzen duen enpatiaren eta elkartasunaren kontzeptua biktima guztiengana eta giza eskubideen urraketa guztietara zabaltzen da. Pedagogia hori bateraezina da terrorismoa, indarkeria eta giza eskubideen urraketa legitimatu edo gutxiestearekin. Era berean, ezin du onartu inolako sektarismo, alderdikeria, salbuespen edo ahanzturarik, giza eskubideen eta biktimekiko elkartasunaren unibertsaltasuna apalesten duenik.

#### 4.3. Bizikidetzaren pedagogia

Azken batean, ekimen honek hezkuntza-proiektuaren ardatz nagusietako bat indartzen du: bizikidetzarako

hezkuntza. Horregatik, lan-proposamen honi modulu deritzo: atal bat delako, bakearekin, giza eskubideekin eta justiarekin engaiatutako bizikidetzarako hezkuntzako proiektu orokor batean txertatu behar dena. Bizikidetzaren bidezko eta adostu baterako hezteak, hori da baliogorena. Hezkuntza-modulu honen iparra elkarrekin bizitzen ikastea da. Gako nagusi eta lehenetsuekiko bizikidetzak da, eta bi ildotan mamitzen da: indarkeria prebenitzea eta bizikidetzaren adostea.

#### 4.4. Enpatiaren pedagogia

Hezkuntza-modulu honek ezaugarri berezi bat du: sufrimenduari aurpegia jartzen dio. Ez da kontzeptu jakin batzuen abstrakzio teorikoaren atzean gordetzen. Esperientzia eta benetako bizipena jaso nahi ditu, sufrimendua jasan duen eta egoera horri aurre egin dion pertsona baten testigantza entzutearen bidez. Sufrimenduen errealitatea lantzen du biktimismoaren arriskuan jausi gabe. Biktimekiko elkartasunaren eta enpatiaren esperientzia sustatzen du. Alde horretatik, ez da neutrala. Adi-adian du izena, entzuteko esperientzia arretatsua, sakona eta enpatikoa izatea lortu nahi duelako.

## 5. Lan-proposamena

---

Hainbat hamarkadaz, indarkeriak eta giza eskubideen urraketek, egoera sozialki traumatiko bat ekartzeaz gain, batik bat sufrimendu bidegabea eta muturrekoa eragin diete milaka pertsonari; bidegabekeria horiek zuzen-zuzenean edo familiaren barruan bizi izan dituzte.

---

Bizipen horren ondoren, gorrotoaren ordeztu bizikidetzaren aldeztu duten pertsona horietako batzuen gogoetak zuzenean entzun ahal izateak balio hezigarri eta pedagogiko handia du. Ikaskuntza, kasu horretan, inork zuzenean bizitakoa entzutearen esperientziak dakar, eta ez gai jakin bat irakasteak.

Adi-adian Moduluaren proposamena da, bere xumean, DBHko 4. mailako eta Batxilergoko ikasleei pertsona horien zuzeneko testigantza gerturatzea; tutoretzak nahiz etika, filosofia edo historiako ikasgaiak baliatu daitezke horretarako, edota zeharkako proiektuetan txertatu. Hezkuntza-esperientzia hori gauzatzeko, formatu hauetakoren bat edo batzuk erabil daitezke:

- Ikus-entzunezko testigantza.
- Idatzizko testigantza.
- Antzerki bidezko testigantza.
- Biktima bat edo gehiagoren zuzeneko eta aurreko testigantza.

Irakasleek eta ikasle batzuek formatu horiek guztiak aztertu dituzte, eta oso modu positiboan ebaluatu dituzte. Ez dira bateraezinak; aitzitik, horietako batzuk batera erabil litezke pixkanaka edo zenbait fasetan gara litekeen lan batean. Edozein kasutan, oso gomendagarria da zuzeneko testigantzaren esperientzia baliatzea.

## 6. Baliabide erabilgarriak

---

Hezkuntza Berriztatzeko  
Zuzendaritzak eta Bakegintza  
eta Bizikidetzarako Idazkaritza  
Nagusiak ikastetxeei dei egiten  
diete Hezkuntza-modulu hau  
gara dezaten, 2013-2016rako  
Bake eta Bizikidetzaren Planaren  
garapenaren baitan.



Garapen hori errazte aldera, baliabide hauek jarri dira haien eskura:

---

## 6.1. Koordinazioa, informazioa eta prestakuntza

Eusko Jaurlaritzak figura bat sortu du Bake eta Bizikidetzaren Plana hezkuntza-arloan koordinatzeko; zehazki, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzaren, Berritzeguneen, hezkuntza-eragileen eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren artean koordinazio-lanak egiteko. Adi-adian Hezkuntza-modulari dagokionez, zeregin hauek izango ditu figura horrek:

- Informazioa. Modulu honi buruzko informazio-hitzaldiak eskaintzea ikastetxei.
- Prestakuntza. Modulua aplikatzeko prestakuntza-ikastaroak eskaintzea.
- Koordinazioa. Modulua praktikan jartzeko lana koordinatzea, hala eskatzen duten ikastetxeetan.

## 6.2. Tresna didaktikoak

Hezkuntza-modulua aurrera eramateko, une honetan tresna didaktiko hauek daude eskuragarri:

- Zuzeneko testigantza. Biktima-talde bat prest eta gertu dago ikasgeletan bere testigantza emateko. Aurrez egingo diren informazio-hitzaldietan eta prestakuntza-ikastaroetan esperientzia hau garatzeko gida didaktiko soil bat bana-

tuko da, testigantza entzun aurretik, bitartean eta ondoren haren inguruko lanketa egiteko iradokizunekin.


- Ikus-entzunezko testigantza. Ikastetxeek testigantza grabatuak dituzte eskuragarri. Gehiago prestatuko dira. Horiek ere berariazko gida didaktiko bat izango dute.

- Idatzizko testigantza. Aukera hori lantzen has-teko zenbait unitate didaktiko daude. Horiek ere gida bat izango dute laguntza moduan.

- Antzerki bidezko testigantza. Biktimen testigantzarekin egingo den hezkuntza-lana Antzerki-Forumaren bidez egiteko aukera dago.

## 6.3. Baliabide ekonomikoak

Hezkuntza-modulu hau ikastetxeetan ezar dadin sustatu eta errazteko, hura ezarri eta aplikatzeko behar den prestakuntza Elkarrekin Bonu Programaren bidez egiteko aukera emango da. Eusko Jaurlaritzak funts bat jarriko du 2014ko aurrekontuan, bakerako eta bizikidetzarako hezkuntzaren arloan prestakuntza-, dinamizazio- eta aholkularitza-ekin bultzatzeko. Ekintzotan euskal elkartearen sareko ikastetxeek eta erakundeek parte hartuko dute.



Argitaraldia: 1.a, 2013ko abendua • Berrinprimaketa: 1.a, 2014ko urtarrila • Ale-kopurua: 1.000 ale • © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia • Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco (Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria- Gasteiz) • Diseinua eta maketazioa: Quod Sail • Inprimaketa: Gráficas Irudi, S.L. • Lege-gordailua: VI 208-2013.